

GEURE BERBAK

GEURE BERBAK

GEURE BERBAK

BUSTURIALDEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

EGILEAK :

Jabier Jauregizar. San Francisco H.I. (Bermeo)
Marian Araucua. Santa Luzia H.I. (Gernika-Lumo)
Belen Gerrikagoitia. Eleizalde Ikastola (Bermeo)
Agurtzane Renovales. Barrutia H.I. (Arratzu)
Maria Isabel Bilbao. Allende-Salazar Eskola
(Gernika-Lumo)

Lanaren koordinatzailea:

Nerea Jaio. B10 Berritzegunea

Hiztegitxoaren oinarria: Adolfo Arejita .

Hiztegia osotzen lagundu dutenak:

Hizkuntza Normalkuntzako Arduradun Teknikoak.

Seber Altube Ikastola, Barrutialde B.H.I., Arozena-Barrueta B.H.I., San Fidel Ikastola, Gernika B.H.I.

Eskerrak Bermeo eta Gernika-Lumoko Udalei.

AURKIBIDEA

1. Izenak

- Abereak
- Landare, ortuari eta fruituak
- Gizakia: anatomia, jantziak, etxea
- Denbora
- Tokia
- Eguraldia
- Beste batzuk

2. Aditzak (ekintzak)

3. Adjetiboak

4. Adberbioak eta bestelakoak

ARGIBIDEAK

- Berbak gaur egungo arau ortografikoak errespetatuz idatzita agertzen dira.
- Berbaren sinonimoa da berbaren ondoan dagoana; gaur egun gehien erabiltzen dan sinonimoa.
- (H.B.): Euskaltzaindiako “Hiztegi Batua”-n onartua izan dan berba da.

SARRERA

Eskuartean dozuen berba hautatuen bildumatxo honek 2000. urtean Gernika eta Durangoko PATak euskalkiaren erabileraren inguruan eratu eben ziklo baterako ondu neban berba-zerrenda baten sorburua. Eskolan euskera batua irakatsi orduan, bizkaierako ze berbategi sartzea komeni zan, hori zan antolatzaileen kezketariko bat. Berba-zerrenda hori, hiztegi-ordena konbentzionalaz barik, eremu semantikoen arabera antolatu zan: zentzu-esparru batzuk finkatu genduzan eta eurotako hitzak landu. Hitz-kategorien araberrako sailketa be egin zan: izenez gainera, adjetiboak, aditzak eta aditzondoak batez be.

Aurre-lan horren ganean Busturialdeko Lehen Hezkuntzako Hizkuntza Normalkuntza Taldeak lanean ekin deutso, eta galbahetu ondoren, bigarren hautaketa bat egin berba gehiago erantsiz. Horren fruitua da, bada, eskuartean dozun lantxo.

Emaitza honek gauza bat erakusten dau argiro: gure ikastetxeak eta irakasleak biziro arduratuta dagozala lekuan lekuko euskerea aintzat hartu beharraz; eskolakumeek etxean eta kalean darabilen berbemoduari ezin jakola eskolan atzea emon, eta moduren bat bilatu behar dala ha irakaskuntza-prozesuan txertatzeko, horrek ikasleen euskera-kalitatea hobetuko dauelakoan.

Langai apal honen erabiltzaileari besterik ez deusagu opa, eskolajardunean lagungarri izan dakiela baino.

Zorionak lan honetan partaide izan diran guztiei eta hurrengo etorriko diran beste lan batzuen aurrerapen gerta dadila berau.

Adolfo Arejita

HITZ BI

Busturialdeko Hizkuntza Normalkuntzak badu betebeharreko hutsunerik bere horretara jo gura izan ezker, bai eskola zein herri mailan.

Izan ere, etxetik ikastetxera doan umeak etxeko hizkuntza normal osoaz baliatu behar luke, beste hizkuntza arlo zabalagoak eskuratzen dituen bitartean.

Jakina denez, gure Eskualdean bada aparteko hitz, esakera edo esamolderik bereziki erabiliak, umeak entzun eta ikasitakoak.

Aurrean daukazun lanaren helburua, beraz, honetan datza: Eskualdean erabiltzen den hiztegi jator hori ere, irakaskuntzan eta giza-harremanetan abiaraztea; modu horretan umearen hizkuntzarekiko ekarpena aintzakotzat hartuz, beharrezko jarraipena izango lukeelako ikaslearen hizkuntza garapenean, komunikazio prozesurako tresna hurbilagoa eskainiaz.

Busturialdeko hizkuntza jatorra ikertu eta bilketa hau egitean, Euskara berari ere mesede ederra egiten zaio, zeren hola ez balitz, berbon erabilera gutxiagotuz lihoake eta galtzeko arriskuan jarri.

Lan honen inguruan esan behar da irekia mantentzen dela eta Hizkuntza Normalkuntzako Taldeak erronka honi darraiola eranskin berriez hornitzeko asmoz.

Bukatzeko, ondoren aurkituko dituzun edukien hartzaileak gaztetxoena dira bereziki, H.H. eta L.H.ko ikasleak, D.B.H.koak ahaztu barik; azken finean gizarte osoan jardun eta indartu behar du hiztegi honek, aurrikusitako proiektuak aurrera egin dezan.

Alicia Intxausti

IZENAK

ABEREAK

Ahausi: zaunka
Aramu: armiarma
Arditxakur (H.B.)
Ahume: antxume
Artxo: arkume
Bigantxa: txahal eme (H.B.)
Bildots: arkume (H.B.)
Elai: enara (H.B.)
Kirikolatz: triku
Luki: azeri (H.B.)
Mozolo: ontza (H.B.)



oilarra



mozoloa



elaiak



txakurre

Ogigazta: erbinude (H.B.)
Oilar/oilo /oilanda /oilasko (H.B.)
Oskol: maskor (H.B.)
Paita: ahate (H.B.)
Txakur: zakur (H.B.)
Tximino: tximu
Txindor: txatxangorri (H.B.)
Txita (txittie) txita (H.B.)
Ugaraxo: igel (H.B.)
Ulu: alarau (H.B.)
Zekor: txahal arra (H.B.)

LANDARE, ORTUARI ETA FRUITUAK

Aretx: haritz

Berakatz: baratxuri (H.B.)

Ginarra: txilarra (H.B.)

Hurritz: hur (fruitua)

Idar(ider) : ilar

Iko: piku

Indabak: babarrunak (H.B.)

Ira: iratze (H.B.)

Kipula: tipula (H.B.)



orbela



mailukiak



berakatz



hurritzak

Madari: udare (H.B.)

Mailuki: marrubi (H.B.)

Makatz: madari txiki mota bat (H.B.)

Mukur: enbor (H.B.)

Okaran: aran (H.B.)

Orbel: hosto (H.B.)

Orri: hosto (H.B.)

Ortu: baratz (H.B.)

Ortuari: barazki (H.B.)

Zuztar (zuzter): sustrai

GIZAKIA: ANATOMIA, JANTZIAK ETA ETXEA

Abade: apaiz (H.B.)

Abadeki : apaizgai

Abadetza: apaizgo

Adur: lerde, bits (H.B.)

Aita (aitte): aita

Aitabitxi (aittebitxi): aita besoetako (H.B.)


Aitita(aittite): aitona

Ahizta: ahizpa

Altzo: magal (H.B.)

Amabitxi: ama besoetako (H.B.)


Amama,amuma: amona (H.B.)



artaziak



andrakila



amuma

Andrakila: panpina (H.B.)

Andrazko: emazteki (H.B.)

Andra: emakume (H.B.)

Arerio: etsai (H.B.)

Arotz: zurgin (H.B.)

Arrakada: belarritako

Arreba: mutil baten ahizpa (H.B.)

Artazi: guraize (H.B.)

Atzamar: atz (eskukoak) (H.B.)

Atzazkal: azazkal (H.B.)

Auzoko: auzoan bizi dana (H.B.)




ezkaratza

Etarte: atari
Etxekone: alboko etxea
Gizonezko: gizaseme (H.B.)
Hegal: albo
Irastontzi: irazgailu
Irola: komuna
Izara: maindire (H.B.)
Izeko: izeba (H.B.)
Konketa: garbiontzi (H.B.)
Konorte: korde (H.B.)
Matrailer: masaila (hizt)
Mokor: aldaka (H.B.)
Morroi: mutiko, zerbitzari (H.B.)
Morrosko: mutil-puska (H.B.)


Behargin: langile (H.B.)
Behatz: beheko hatzak (H.B.)
Behekosu: sukaldean, zelaian egiten dan sua
Bekoki: kopeta (H.B.)
Berna: zango (H.B.)
Birraitita (birraititte): birraitona
Birramuma: birramona
Buztan: isats (H.B.)
Eperdi: ipurdi
Erbesteko: kanpotar, atzerritar (H.B.)
Ezkaratz (ezkatz): sukalde (H.B.)
Eskeko: eskale (H.B.)



Neba: neska baten anaia (H.B.)
Neba-arrebak (H.B.)
Neskatilatxu: neska nerebe
Neskato: neska sendo hazia (H.B.)
Okotz: kokots
Orban: zikinunea (H.B.)
Osaba-izekoak (H.B.)
Otzara: saski, otarre (H.B.)
Papar: bulargain (H.B.)
Paparreko: zarrailu, brotxe
Puxika: maskuria (H.B.)
Sama: lepo (H.B.)
Samako min: eztarriko min



umie



otzarie

Soin: alde (H.B.)
Soinean: aldean (H.B.)
Soinekoa: jantzia (H.B.)
Surtzilo: sudurzulo
Tripalak: tripako minak (H.B.)
Txarriboda: txarri hiltze otordua (H.B.)
Ugazaba: jabea (H.B.)
Ugazabandra: jabea, andra (H.B.)
Ume: haur (H.B.)
Umealdi: sabelaldi (H.B.)
Umedun: haurdun (H.B.)

DENBORA

Aldi: garai(H.B.)

Aratusteak: inauteriak

Aro: giro (H.B.)

Astegoien: asteburu

Asti: beta, denbora libre (H.B.)

Bagil: ekain (H.B.)

Bariku: ostiral (H.B.)

Belu: berandu (H.B.)


Domeka: igande (H.B.)

Domu Santu: azaroaren 1.a (H.B.)



udagoiena

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	BARIKUA	ZAPATUA	DOMEKA
-------------------	-------------------	------------------	---------------	----------------	----------------	---------------



bagila eta garagarrila

Doniane: San Juan

Eguazten: asteazken (H.B.)

Eguen: ostegun (H.B.)

Eguenzuri: ostegunzuri

Garagarril: uztail (hizt)

Marti: martxo (H.B.)

Martitzen: astearte (H.B.)

Sasoi: garai (H.B.)

Tertzio: une (H.B.)

Udagoien: udazken (H.B.)

Unekada: aldi, momentu

Zapatu: larunbata (H.B.)

Zemendi: azaro (H.B.)


Zezeil: otsaila (H.B.)

TOKIA, LEKUA

Albo: ondo, aldamen
Aldats: aldapa (H.B.)
Aldatsbehera: gainbehera
Aldatsgora: aldapa gora
Erbeste: atzerri (H.B.)
Erripa: aldats gora
Jarleku: eserleku (H.B.)
Karkaba: luban (H.B.)
Mendi tontor: mendi punta (H.B.)



potxingoan



Oilotoki: oilategi
Potxingo: putzu txikia
Pozu: putzu
Sabai: lastategi (H.B.)
Solo: soro
Tontor: muino (H.B.)
Troka: amildegia (H.B.)
Trokarro: arro
Txarritoki: txarritegi (H.B. txerritoki)

EGURALDIA

Afruntu: haizea eta euria batera; ekaitza

Aro, giro: eguraldi, sasoi (H.B.)

Behelaino: lainobehera (H.B.)

Edur: elur

Garro: ihintz (H.B.)

Inetasi: txingor, kazkabar

Lei: izotz

Oinaztu: tximista (H.B.)

Sargori: bero-astun (H.B.)


Truxu: euri-jaza (H.B.)

Uriolak: uholdeak

Zarrazoi: laino zarratu



akorda



BESTE BATZUK

Adore: ausardi (H.B.)

Ahalegin: saiakera (H.B.)

Aiene : kexa (H.B.)

Akorda: oroimen

Aldarri: deiadar

Amaiera: bukaera (H.B.)

Apur: pixka (H.B.)

Ardura: axola (H.B.)

Atal: zati (H.B.)

Atsekabe: nahigabe (H.B.)
Autu: solas (H.B.)
Barre-purrustada: barre-algara
Behar: lan (H.B.)
Beharrizan: premia (H.B.)
Beharleku: buruhauste (H.B.)
Berba: hitz (H.B.)
Dardara: ikara (H.B.)
Enparau: gainerakoa
Enpagu: nazka
Era: aukera
Erosta: kexa, aiene (H.B.)
Erruki: gupida (H.B.)



beharleku



beharrean

Ikara: izu (H.B.)
Itaun: galde (H.B.)
Kopau: mokadu (H.B.)
Okela: jateko haragia (H.B.)
Olatu: uhin (H.B.)
Olgeta: jolas (H.B.)
Oste: atze (H.B.)
Pernil: urdaiazpiko (H.B.)
Purrustada: barrealdi (H.B.)
Sunda: kirats (H.B.)
Tarratada: urratua (H.B.)
Tiradera: kajoi (H.B.)




ADITZAK (EKINTZAK)


Adi egon: arreta jarri (H.B.)
Adoretu: kemendu
Aitu, aditu: ulertu, begiratu
Agertu: azaldu, aurkeztu (H.B.)
Agiri: agiriko kontuak: ageri (H.B.)
Agirika egin (H.B.)
Agortu: lehortu, amaitu (H.B.)
Ahalegindu: saiatu (H.B.)
Ailega(t)u: iritsi (H.B.)
Akordatu: esnatu
Alpertu: nagitu
Altza(t)u: altxatu
Amaitu: bukatu (H.B.)
Amata(t)u: itzali
Apara(t)u: xederatu
Apurtu: hautsi (H.B.)

Txilio: oihu (H.B.)
Txikot: soka lodia (H.B.)
Zati: puska (H.B.)
Zeregin: eginkizun (H.B.)
Zirkin: mugimendu (H.B.)

ahalegindu





Aratu: arakatu
Ardura izan: axola izan (H.B.)
Asmatu: susmatu (H.B.)
Atondu: konpondu (H.B.)
Barruntatu: susmatu (H.B.)
Batu: bildu (H.B.)
Begitandu: iritzi (H.B.)
Beratu: bigundu (H.B.)
Berba egin: hitz egin (H.B.)
Birrindu: hautsi (H.B.)
Bizkortu: azkartu, biziberritu (H.B.)
Ebatzi: erabaki (H.B.)
Egotzi: ardura eman (H.B.)
Eiho: eho (H.B.)



berba egiten

Emon: eman
Enpalaga(t)u: losintxatu
Eragin: arazi (H.B.)
Eragotzi: galerazo, debekatu (H.B.)
Eralgi: xahutu (H.B.)
Erantzi: kendu, biluztu (H.B.)
Eritxi: iruditu
Eroan: eraman (H.B.)
Errukitu: gupidatu (H.B.)
Eskegi: zintzilikatu (H.B.)
Galerazo (galazo): debekatu
Heldu: iritsi (H.B.)

Heldu: atxiki, oratu (H.B.)
Horditu: mozkortu (hizt)
Igaro: garraiatu (H.B.)
Igarri: antzeman, asmatu (H.B.)
Ikaratu: izutu (H.B.)
Ipini: jarri (H.B.)
Itaundu: galdetu (H.B.)
Itxartu: esnatu (H.B.)
Iziotu (ixetu): piztu
Jagon: zaindu (H.B.)
Jaramon egin: kasu egin
Jaurti: bota (H.B.)
Jausi: erori (H.B.)
Jesarri: jarri



Katigatu: trabatu (H.B.)
Laprast egin: laban egin (H.B.)
Larritu: zorabiatu (H.B.)
Laskitu: hondatu (H.B.)
Loditu: gizendu (H.B.)
Lorrindu: alferrik galdu, nahasi (H.B.)
Mailatu: makatu, konkatu (H.B.)
Muskildu: murriztu (H.B.)
Okertu: gaiztotu (H.B.)
Oratu: eutsi, heldu (H.B.)
Osatu: sendatu (H.B.)
Puztu: haizez bete (H.B.)

Sakatu: bultz egin (H.B.)
Suertatu: gertatu, egokitu (H.B.)
Trokatu: bihurritu (H.B.)
Txikortu: kizkaldu
Txolindu: buru-arindu (H.B.)
Ugaritu: ugaldtu (H.B.)
Uger egin: igeri egin (H.B.)
Ugertu: herdoildu (H.B.)
Zinbu-zanbu egin: kulunkatu
Zehetu: txiki-txiki egin
Zirkin egin: mugitu (H.B.)
Zoldu: infektatu (H.B.)



uger egiten




ADJETIBOAK

Antxinako: aspaldiko
Arin: azkar (H.B.)
Artega: urduri (H.B.)
Baldar: trakets (H.B.)
Baldres: moldakaitz (H.B.)
Bardingo: arteko, ertaina (H.B.)
Berbatu, berbatsu: hitzontzi
Bizkor: arin, azkar (H.B.)
Buruarin: burugabe, kaskarin (H.B.)

Erbesteko: arrotz (H.B.)
Errukior: bihozbera (H.B.)
Errukitsu: gupidatsu (H.B.)
Lohi: zikin (H.B.)
Loka: koloka (H.B.)
Lorrin: euritsu, nahasi (H.B.)
Makal: ahul (H.B.)
Mizkin: mokofin (H.B.)
Motz: itsusi
Murtik: tutik
Nagi: alfer (H.B.)
Narras: saskel, baldres (H.B.)



txikerra



Oker: gaizto (H.B.)
Sasikoipetsu
Saskil: narras (H.B.)
Txiker: txiki
Ugerdo: zikin (H.B.)
Upielako: aparteko, egundoko
Zapazto: narras (H.B.)
Zital: zikoitz (H.B.)
Zoro: ero(H.B.)

ADBERBIOAK ETA BESTELAKOAK

Albait arinen: lehenbailehen (H.B.)

Antza: dirudienez (H.B.)

Antxina: aspaldi

Apur baten: une baten

Arineketan: bizkor, azkar (H.B.)

Arrapaladan: arineketan (H.B.)

Astiro: geldiro (H.B.)

Aurki: seguraski

Bai seguru: jakina baietz

Beharbada: agian (H.B.)

Behingoan: behingoz (H.B.)

Benetan: egiazkoa (H.B.)

Bider: aldiz (H.B.)

Dandarrez: arrastaka (H.B.)

Drogan: istiluan, iskanbilan (H.B.)

Ederto: ederki (H.B.)

Edozelan: edonola (H.B.)

Edozenbat: hainbat

Ei: omen

Eratara: zuzenean

Erreztan: haserre, errietan

Errietan: haserreka (H.B.)



Ezelan: inola (H.B.)
Geldiro: kontuz (H.B.)
Hur: hurbil (H.B.)
Itxura denez: argi denez (H.B.)
Itzel: primeran (H.B.)
Jakina: noski (H.B.)
Lako: bezalako
Lantzean behin: noizik behin (H.B.)
Mordo: asko (H.B.)
Noiznoiz (noiz edo noiz)
Nonon (non edo non)
Nonor (nor edo nor)
Ortozik: oinutsik
Ostean: ondoren (H.B.)
Ozta-ozta: doi-doi (H.B.)
Polito: dezente (H.B.)
Uluka: alarauka (H.B.)
Urrun, urrin: urruti (H.B.)
Zelan: nola (H.B.)
Zenbatgura: zenbanahi (H.B.)
Zeozelan: zelan edo halan
Zeozer (zer edo zer)

